

**BIZKAITARRAI-
BIZKAIERAZ***

www.euskerazaleak.biz

312n. zenbakia

abendua 2005

ZARR



BIZKAIKO FORU ALDUNDIA
KULTURA SAILA
LAGUNTZAILLE

9.– FENIZIARRAK (K.A. 1100-650)



Feniziarrak sal-erosle: non-zer.

Babilonia, Asiria eta inguruko erreinua, nork nori aginduko burrukan ebiltzala, Lurrarte Itxasoaren inguruko urietan feliziar azoka-zaleak agertu ziran eta egunerik egunera indar aundiago ta aberastasun geiago lortzen joiazan.

Gauza arrigarria gudarako berotasunik ez euken Tiro eta Sidon, uri laterria armadunak baiño menperatu eziñagoak agertzea. Gudaroste indartsuak jokatu eben euren aurka, baiña Tiro'k eta Sidon'ek euren merkataritzan jarraitu eben.

India, Txina, Ego-Afrika Ejipto eta Babilonia'tik gabelu ilara luzeak, mendi ta basamortuetatik zear, Fenizia'ko kaietara urreratzen ziran euren zamalariakaz merkataria ontziak beteten ebezela.

Feniziarrak saltzen ebezan salgaietatik gurenak, purpura-kolore gaiak eta suillak ziran, eta orrekaz batera ontzietan bialtzen ebezan datil eta iko-aleak jateko, eun fiñak artulea eta bitxiak jatzeko; kobrea, brontzea, sidarra eta urrea langaiak egiteko.

Mariñel trebe areik aize oialak ontzia bultzatzeko ebezela ebiltzan feniziarren itxas-intzi astunak itxasoan zear. Bide'ko kaietan, bai, euren Kartago feniziar aretan geldialdiak eginda. Eta alderik alde zearkatzen eben Lurrarte Itxasoa eta Afrika'ren itxas-ertzari ondo eutsita, okerrren bat gertatu ez ekien, urriñago eltzen ziran.

Sortalderatza naiz iparralderantza bidea artuta, Troia'ko kaira be eldu ziran iñoz Ejeo itxasoaren ugarte

artetik, Kreta'ko uri aberatsak ikertu ebezan eta Zerdeña ta Kortzega ta España'n koloniak sortu be bai.

Itxaso illunen barruan trebeenak eta ausartenak ziran, ipuiñetan edesten diran sekulako arriskuen bildur aundirik barik: Ekatz ikaragarriak, itxasoko pizti bilduragarriak, eta azkenik, "itxas-zurrupa" edo biurrikeriak.

Feniziarrak ondo ekien itxaso illuna ez zala ipuiñak iñoen bestean arriskugarria. Eta aurrera jarraitu eben beti, ingles landubakoai be metal ez-ezagunak erosi eta etxerantza ekarteko.

Mariñel batzuk Persia'ko itxas kolkotik India'ko itxas aundira eldu ziran eta andik Afrika-barrenera joan be bai itxaropen Ona'rena diritxon lur-erpiñetik gon eta euren Lurrarte-Itxaso ezagunera biurtu arte. Bideko kaietan iru urteko ibillaldi luze orren barruan, geldi-aldi laburrak egiten ebezan eta ango aziak ekarri be bai, naizta euren etxeakoak ori egia zanik sinistu ezin izan.

Feniziarrena da munduan izan dan abederik zaarrera, baiña eurak ez eben eskola-lanik egin.

Azoketan Babiloniarrek izaten ebezan norgeiakoka eta euren maillara eldu ziran jakintza, ederti eta erlejiño-arloetan. Erlejiño biak ziran gogor eta odolzaleak.

Esker ona zor dautso munduan Feniarren erriari euren ontzietan sortaldeko salgaiakaz batera edertia ta giza-lantzea zabaldu ebelako.

Olazar'tar Martin'ek

AUSTRALIA TA UGARTEAK

AUSTRALIA

Australia ugarte aundi bat da. Bere zabalera 14 Iberia'ren bestekoa da eta inguruko itxaso biak Barea eta Indikoa dira.

Uririk geienak eta aundienak egoaldean dagoz, Kanberra ta Melbourne, esaterako.

Sortaldea mendi-kate aundia da.

Erdialdea ta sartaldea basamortuak doguz eta orreïn barruan antxiñako enda batzuk baiño ez dira bizi.

Nekazaritzarako lur ona mendikateen eta basamortuen artean dago. Eta abere-talde aundiak jaten dabe or.

Iparraldeko lurra epela da eta azukare-kañaberak dagoz ugari, banana ederrak be bai.

Bizilagunik geienak itxas-ertzean dagoz eta azal baltze-koak eta eiztariak dira. An dagozen zuriak Anglandia'tik joanak doguz.

Kanada lez au be, Commonbealt'en edo Errege-lur batuaren barruan dago.

Basoetan eukalptua da zugatzik ugariena eta abereen artean geienak gutzat ez dira ezagunak. Urre-meatzak be badagoz.

Australitarrak dantzari trebeak eta ikusgarriak dira.

Garia lantzen be aurreratuak doguz, baiña euren aberas-tasunik aundiena ardiak dira. Artulea edo lanea sortzen dira munduko onenak.

Untxiak edo konejuak dagoz ugari eiztariantzat, baiña soloetan egiten dabez kalte aundiak. Burdin-sareakaz inguru-ratu bear izaten dira soloak.

UGARTEAK

Itxasoak aundi ta zabalak dira: Atlantikoa, Barea, Iparraldeko izoztua, Indikoa. Eta itxas aundi onein bitarteetan itxas txikiagoa be badagoz: Lur-artekoa, Gorria, Adriatikoa, Ejeoa, Baltza, Azov, Kaspio, Zuria, Baltikoa, Ipar-itxaso, Kantaurikoa, Txina'koa.

Aleutianak deritzen ugarteak Alska'tik urrean dagoz, Bering itxasoaren ondoan. Beti egoten dira laiñopean.

Iberia osoa baiño ugarte aundiagoak dira batzuk, esaterako Groelandia ta Madagaskar, beste batzuk osterak, ez dira aitz-puruak baiño.

Groelandia'n eskimalak bizi dira alkarren ondoan eta udan barazkiak artzen dabez. Neguan eiztari dira eta fokak, azagariak, otsoak eta renoak eizatzen dabez.

Ugarte batzuk alkarragandik urrean dagoz eta artxipelago edo ugarte-moltzoak deritxe, esaterako Japon edo Pillipiñak.

PILLIPIÑAK

Menditsuak dira eta basoz aberatsak eta zur ona saltzen dabe. Euren etxeak banbuz egiten dabez, ageen gaiñean, uriolak kalterik ez egieko.



Lur-garriaren egoaldean: Argentina, Ego-Afrika, Australia. Ardi-lurrak.

Azukarea, arroza eta tabakoa dabez salgai. Bufaloak lagun dabezela lortzen dabez.

Arraintzarako dira trebeak.

JAPOIA

3.000 ugartek osotzen dabe. Menditsuak eta sumenditsuak dira.

Erraza beillegi edo oriko biztanleak dira eta beste errazarik ez dabe onartzen izan.

Arroza, tea, eta masustondoak daukez baiña ez dabe eurentzat beste janari sortzen izan. Gaur asko aurreratu dira eta langille ona eta laterri aberatsa dira.

Bertako lorategiak dira ikusgarriak.

Arrantzarako be oso trebeak dira.

Ugarte asko be asko dagoz munduan, batez ba Ozeania'ko Polinesia (ugarte asko) ta Melanesia'n (ugarte baltzak).

Olazar'tar Martin'ek



BIZKAIERAKO ONERI TA ORRERI DATIBOAK

Beste euskalki guztietan *oni* ta *orri* erakusleak (pronombres demostrativos) erabilten dituez. Komeni da ikertzea zeintzuk diran jatorrenak, kontuan artuta jakintsu guztiak, beste milla bider legez, bizkaierakoak ipinten dituela atzean, *oni* ta *orri* zarragoak dirala esanez iñolako probarik aurkezten saiatu barik. Ainbeste urteetan gertatu dan legez, bizkaierako itz asko ez dira aintzakotzat artzen eta baztartuta lagaten dira.

Bizkaian, *neu/neu-k*, *eu/eu-k*, *geu/geu-k*, *zeu/zeu-k*, izen ordainak (pronombres personales) iñon baiño geiago erabilten dituguz eta beste euskalkietan, *ni/ni-k*, *i/i-k*, *gu/gu-k*, *zu/zu-k*, geiago. Aspalditik dakigu, antxinako denporetan, *neu-r/neu-r-k* eta *zeu-r/zeu-r-k* idatzi zituezela Axular, Izueta, Larramendi, Van Eys, Pouvreau, Undiano ta Ondarra idazleak euren idatzitan. Axularren *neu-r* bizkaierako *neu* zala esan eban Irigoyen bizkaitarrak. Orduan, *neu-r* da jatorrena, gero *neu* ta azkenean *ni*. Oin dala urte bete, Lazarragaren 500 urtetako esku-izkribu bat aurkitu zan. Idazle onek ipinten zituzan, denpora areetan, bai len aitatu dituguzan *neur/neur-k*, *zeur/zeur-k* eta baita be, onerarte aurkitu barik zegozen, *eur/eur-k* ta *geur/geur-k*. Orduan, genitiboak *neur-e*, *eur-e*, *geur-e*, *zeur-e* dira ta datiboak *neur-i*, *eur-i*, *geur-i*, *zeur-i*, bizkaieran asko erabilten diranak.

Erakusleetara itzulirik berriro, ikusi daiguzan nola sortu ziran antxinako denporetan. Itz bigaz konpondu ziran. Lenengo zatia **aur* zan (bere jatorriaren ikerketa emen ez dogu ipiniko luzea dalako) baña “gauzak” izentatzeko sortu zan eta ez “pertsonak”, eta bigarren zatia, esate baterako, *neur*, izen ordaina, “pertsonak” izentatzeko. Orduan, **aur* + *neur* > **aur-neur*/**aur-neur-k*. Onen esan-naia zan, asiera baten beintzat: “neugaz” edo “neure ondoan” dagon “gauza” = gaurko *au* = erderazko ‘esto’. Era berean, **aur* + *eur* > **aur-aur*/**aur-aur-k*. Jatorrizko esan naia: “eugaz” edo “eure ondoan” dagon “gauza” = gaurko *ori* = erderazko ‘eso’. Len esan dogun **aur*, bakar-bakarrik, bigarren zatirik geitu barik, onelan aldatu zan: **aur* > *ar* > *a* = gaurko *a* = erderazko ello/aquello. Onelan aldatu dira andik onerarte: **aur-neur-k* > *au-neu-k* > Bizkaian *au-ne-k* /*aunek* > Euskalerri osoan *onek*; *aur-aur-k* > *aur-eu-k* > Bizkaian *aur-e-k* /*aurrek* > Euskalerri osoan *orrek*; *aur-k* > *ark* > *arek*.

Ondoren, erakusleak datiborako euki zituzen aldaketak onek dira:

<i>aur - neur</i> + <i>i</i>	(datiborako i)
<i>au - ne r - i</i>	jatorrena, Bizkaian bizirik dagona baña gutxi erabilten dana
<i>o - ne r - i</i>	Bizkaian normalean erabilten dana, zarrena Euskalerrian
<i>o - n - i</i>	beste euskalkietakoa, jakintsuak zarrena dala esaten dauena baña probatzen saiatu barik. Argi ikusten dogu barriena dala
<i>aur - eur</i> + <i>i</i>	(datiborako i)
<i>aur - e r - i</i>	jatorrena, Bizkaian bizirik dagona baña

	gutxi erabilten dana
<i>o r - e r - i</i>	Bizkaian normalean erabilten dana, zarrena Euskalerrian.
<i>o r - - i</i>	beste euskalkietakoa, jakintsuak zarrena dala esaten dauena baña probatzen saiatu barik. Argi ikusten dogu barriena dala
<i>aur - + i</i>	<i>aur</i> bakar-bakarrik, bigarren zatirik barik
<i>a r - - i</i>	betikoa, Euskalerrri guztian erabilten dana. Bizkaian, <i>areri</i> be erabilten dogu sarritan baña ez da jatorra. Argi ikusten da <i>oneri</i> ta <i>orreri</i> kopiatuta, analogiaz, sortua dala.

Argudio oneei laguntzeko, ikusi daiguzan genitiboan gertatu ziran aldaketak:

<i>aur - neur</i> + <i>en</i>	(erakusleen genitiborako marka dan <i>-en</i>)
<i>au - ne r - en</i>	Bizkaieran bizirik dagon <i>aunen</i> -en aurrekoa
<i>o - ne r - en</i>	Landuchiok 500 urtetako iztegian dakarrena, araba-bizkaieraz
<i>o - ne - n</i>	barriena, Euskalerrri osoan usatua
<i>aur - eur</i> + <i>en</i>	(erakusleen genitiborako marka dan <i>-en</i>)
<i>aur - e r - en</i>	Bizkaieran bizirik dagon <i>aurren</i> -en aurrekoa
<i>o r - e r - en</i>	Landuchiok 500 urtetako iztegian dakarrena, araba-bizkaieraz
<i>o r - e - n</i>	barriena, Euskalerrri osoan usatua
<i>aur - + en</i>	<i>aur</i> bakar-bakarrik bigarren zatirik barik
<i>a r - - en</i>	betikoa, Euskalerrri guztian erabilten dana

Badagoz, Bizkaieran ain zuzen be, beste ainbat itz, onerarte esan doguzan itzen lagunak diranak. Ara nola: *oner*-ik aurrera = emendik aurrera baña zarragoa; *oner*-ean, ziurrenik *oneren*-etik sortu dana; *oner*-a = ona; *orrer*-a = orra; *ar*-a = ara; *oner*-aiño; *orrer*-aiño; *ar*-aiño; *oner*-arte; *orrer*-arte; *ar*-arte.

Onek danok ikusita, argi dago komeni dala bizkaiera kontuan artzea euskera osoaren onerako, egunen baten gure izkuntzaren jatorria aurkitzerik izaten dogun euskalki guztien laguntzagaz. Dirala 300, 200, 100 urte ta onerarte, beti nabari izan da jakintsuak ipiñi deuten “maila ilustreak” euskalkiei. Beti ipiñi dituez Iparraldeko euskalkiak toki gorenean, gero gipuzkera-naparrera eta beti atzenean, baztartuta, bizkaiera. Ori ez da jarrera zuzena. Ez dago euskalki onik eta txarrik, obeagoak eta txarragoak. Bakotxak bere aldaketak euki dituz antxinako euskera bakarraren enborretik abiatuta. Euskalki danak dituez euren akatsak baña baita be euskera zarraren lekukotasun asko, jator-jatorrak diranak. Eta, au da gogorrena, antxinako lekukotasun zar eta jator orreek geien gorde dituzena bizkaiera da. Gai onetan, bizkaiera dago euskalki guztien buruan. Zertan ari gara orduan?

(3n. orr. jarraitzen dau)

BAKIO: ETXE BARRIEN IZENAK AUKERATUTEKO ERSIPIDE ETA JARRAIBIDEAK

Euskal ekandu zaarra izan da norberaren etxeari izena emotea, arako “etxetik izena eta izenetik izana” egia egin da-edo. Bakion be ekandu ori gizaldietan zabal eta luze bizi izan da gure artean oraintsura arte. Aspaldion baina, etxe barri asko egin dira errian, eta, antza danez, aurrerantzean geiago egingo be. Orreotariko etxerik geienai baina izenik ez jake emon, ekandu zaar ori zelan edo alan etenduta; edota, alan esan bear da, izen ganorabakoa emon jake batzuetan, urte askotako euskal senaren aurkako norabidean. Alan bada: “etxe bat, izen bat”.

Ekandu orreri oratu bear jako barrian, sendoro oratu be. Erriko nortasunaren ezaugarri sakona izan da, eta gure erriak berezko dauan nortasuna, euskal nortasuna, ez leuke inoz galdu bear, Erri izaten jarraitu gura badau, beintzat. Gaur eguneko egoera soziolinguistikoa bestelangoa izanda, ez dago beste biderik, erriko gizartea bera gino andi baten (udatiarrak) bakiotarra eta euskalduna izan ezda, ekandu ori erriko erakundearen, udalaren eskutik atzera biztu eta etorkizunean aurrera sakatutea baino, ofizialdutea, erriko berebetearen normalkuntza geografikoaren barruan, atan be.

Au guztiau zuztarrean konpondu bear da. Urigintza arauetan gai au kontuan eukitea izango litzake biderik garbiena, dagozan utsuneak egokiro bete eta okerreko geiagorik ez egiteko. Kontu onetan araua egitea ezeze, udalak laguntza tekniko (berbeta aolkularitzea, ..) emotea be bearezkoa izango litzake. Udal arau barri au erriko urigintzako arauetariko beste bat izango litzake, au da, bete bearrekoa.

Alan bada, gure uste apalez, utsune ori beteteko urrengo erispide oneek kontuan euki bearko leukez arau berezi orrek, izenbako etxeai zein etxe barriai izenak emotera-koan:

1.– Etxe izen guztiak euskeraz egongo dira, erriko inguru etnolinguistikoagaz, ondare istoriko-toponimikoagaz bat

(2n. orrialdetik dator)

Lenago ikusi dogun legez, bizkaierako *oneri* ta *orreri*, jatorragoak izanik *oni* ta *orri* baño, eta euskaldun guztien erdiak erabilten dituezenak, zergatik ez dira artu euskera batua osatzeko? Esan eben “gipuzkera osotua” izango zala batuaren oñarria. Begi bistan dago zelako aukera ederra galdu dan agindu ori betetzeko. Zelan ulertu bear dogu au?

Badirudi, gure jakintsuak, ez len eta ez oin, ez dauela uste izan bizkaieratik ezer onik atara leikenik eta bizkaiera albo baten lagatzeko joera oker ori artu daue, eta gañera, ezer be aztertu barik, zeozelan esateko, euren jakituria bear-bea-

egin daien; aurrerantzean be, eundaka urteko continuum linguistikoari jarraipena emoteko, erriko gomutapen linguistikoari eutsi eta jagoteko, azken baten. Ondare linguistiko ori etorkizunari begira jagotekotan, atan be. Gaur arte izen barik dagozan etxeak zein etxe barrien izenak euskeraz iminiko dira. Beste alde batetik, izena erderaz dauken etxe orreen jaubeai be aukera ori zabaldu bear jake eta izenak euskeraz iminiko dira, eurak alan gura izan ezkerroan, jakina.

2.– Izenok aukeratuteko Bakioko ondare linguistikoa oinarritzat artuko da, au da, Bakioko euskerea eta toponimia, izenok erriko berezko inguru linguistiko-toponimikoagaz oso-osoan bat etorri daitezkan, arrotz eta erriko inguru etnolinguistikotik kanpo ez daitezkan lotu. Alanda ze, Bakioko euskerea bizkaierearen azpieuskalkietariko bat dan ezkerroan, Bakioko bizkaiera izango da oinarria, baina ez edozelangoa, agozkoaren paraje-paraje egonda, idazkeran bizkaiera arautuaren ildoan doana baino (Ibarberria→Ibarbarria, Ziyalde?Ziialde). Erriko euskerearen berezitasun linguistikoak (atzizkiak, aurrizkiak, aldaera lexikalak: baltz, barri, bedar, burdi, eleiz, gan/gane, gitxi, gorta, aretx, atx, idar, iko, leizar, mune, mustur, oste, solo, txiker, -txu, zilo, ...) erabiliko dira: Elexondo, Iturribaltza, Iturrigane.

3.– Aurrean esandako guztiagaitik, bada, erriko toponimia (toponimia istorikoa: oronimia, idronimia, fitonimia, oikonimia, ...) izango da orretarako iturri nagusia, beste edozein iturritara jo barik. Egingo dan etxe barria solo, ortu, baso edo beste lekuren baten ganean eginda egongo da-eta. Ezaugarri edo egongune geografiko orreek guztiorreek berezko izena dauke erriko toponimian. Alan bada, aukeraketa ori egiteko urrengoan agertuko diran erispideak erabiliko dira errenkada orretan, leenengo zein erabili eta lekuizenaren egokitasuna dala-eta:

a.– bertako orubearen leku-izena: Gorostiaga.

rezkoak diran ikerketa sakonen gañetik ipiñirik. Ezer probatzen alegiñik egin barik eta iñolako errazoirik bage bizkaiera desprestigiatuz.

Orrelako gertaera oker ugari jaso dituz bizkaierak urrengo artikuluetan ikusiko dogun legez. Euskalki onek bizirik gorde dituz ainbeste ta ainbeste itz eta molde jatorrak Bizkaiko erriari erakutsi bear diranak, bere euskalki zar eta eder oneri berez sor jakon prestigioa bihurturik eta arro egon dadin beragaz, bidezkoa dan legez, batzuen itsukeriai jaramonik egin barik.

Iker J. Laka Guenaga

TOPONIMOAK

b.– orube orren ondoko beste leku-izenen bat: Erlebaso.
d.– orube aren urko leku-izenen bat: Saratsaga.

e.– erriko beste edozein lekutako toponimoren bat: Sagarraga.

Onegaz lotuta, erriko toponimia berez ez bada gogoko edo egokia, izen toponimiko barriak sortu eta asmau leitekez, toponimia istoriko ori (edota modernoa be) erreferentzia eta oinarritzat artuta: Gorostiagazpi (Itxasbideburu).

4.– Etxe barriak izentetako toponimo barri errealak (toponimia modernoa) sortu edo asmau leitekez, orube edo inguru aretako ezaugarri edota egongune geografikoak kontuan (erreferentziatzat) artuta, jakina. Izen deskriptiboak (paratoponimikoak) sortutea litzake, berezitasun geografikoak, soziokulturalak, inguruko toponimoakazko zerikusia, ... kontuan artuta, azken baten: Bizkargane, Itxasalde, Sagarlanda, Ziduri. Euskal sena erabiltea baino ez da, gure arbasoak toponimoak sortuteko erabilen bide berbera.

Atzizki eta aurrizki toponimikoak joko luze-zabala emoten dabe orretarako: aga-albo-alde-arte-asko-aurre-atze-azpi-baltz-barren-barri-be/pe-bedar-beeiti-beeko-biribil-bitarte-burdi-buru-dui/di-ena-estu-eta-gane-gitxi-goigoi-en-goiko-goiti-gorta-guren-aindi-andi-aretx-emeti-idariko-kantoi-ko-landa-leizar-leku-luze-mune-mustur-nagosi-ondo-oste-sakon-solo-tegi/degi-ti/di-toki-txiker-txiki-txutza-uri-zabal-zaar-zilo-zuri- ...

5.– Aurreko puntu bietan azaldutako kasuetan, bai toponimia istorikoa berbera edo bera erreferentziatzat erabili zein toponimo barriak sortu ezkerroan, kontu andiz ibili bear da, sortuko diran toponimo barriak erriko toponimiagaz bikostasunik eragin ez daien. Au da, izen bi bardinik ez, sortuko diran toponimo barriak dirala-eta; kontu istorikoak (Bermeokoak izandako auzoak, ezaugarri geografiko bardintsuak, ...) dirala-eta, toponimia istorikoan izen bardineko leku-izenak dagozan arren (Errotatxu, Etxebarri).

Izen barriak, denporagarreanean, toponimo biurtuko diranez, euren idazkera arean arautu bearko litzake: ts/tx, ll/il, ñ/in, s/z bikoteetakoak argitu zein noz erabili, eta abar.

6.– Artean azaldutako bidea onartu ezkerroan, toponimo ez dan izenik ez litzake erabili bear etxe barriak izentetako, izena euskeraz egonda be. Erabili bear ez dan aukerea, zatarkerietatik ines egiteko, esaterako: Atsedean Garbia, Gure Ametsa, Gure Kabia, Marloi, Ongi-gaude eta orreen antzekoak. Baztertu bear da be jaubeen edo pertsonen izen-abizenak erabiltea, batzuk toponimiatik ara artezean eratorriak izan arren: Amorrortu, Ganboa, Iturregi, Villa María, ...

7.– Baldintzotan izen barriak aukeratuteko gaxtasunak sortu leitekezana onartuta, erriko udalaren aginpean dagoan Euskera Zerbitzuak doariko aolkularitza zein laguntza tekniko osoa eskaini bear deutsoz etxe egile edo etxe jaubeari, kasu guztiak banan-banan aztertuta.

8.– Etxe izenen kanpoko errotulazinoa garrantzitsua da, bearrezkoa, inguru linguistikolari eusteko, izan be. Orretan udalak zuur jokatu bear dau. Udalak berak beratara errotulazinoa ez badau egiten, diru-laguntzinoak eskaini bearko leukiez etxe jaubeari beroneek arau au bete daien. Baina errotulazinoak itxura batekoa izan bearko leuke (izki moetea, koloreak, neurriak, idazkunen diseinua), udalaren esku lotuko da au azkenau eraz araututea, idazkun guztiak omogenoak izan daitezcan.

Erdal munduaren menpetasun kultural eta diglosikotik urteteko dagozan neurri laguntzaileetarikotzat artu bear da proposamen au, gure geurea dan kulturearen mundu ikuskerareta eta nortasun linguistikoa jagon eta eta etorkizunera begirara areri bide emoteko, jakina. Berton aurkeztu dan onek Bakioko euskerearen normalkuntzan sakondutea ekarri bearko leuke. Normaltze orrek eguneroko bizitzan eragina euki bearko leuke, administrazino idazkietan, jaubego agirietan, kaleko zein bideko errotulazinoan, mapetan, liburuetan, edabideetan, erriko eskolan, biztanleen agoetan, ..., ori da-eta normalkuntzearen azken elburua.

Iniaki Martiatu

ALDAREA

Euskaldun parnasosan
itz eder bat ba da
Aldara izenez,
gorengo otoi puntan
Eleizan aurkitzen da
Jaunaren omenez.

Ume aintzagarriak
alदारara doazi
otoi egitera,
puntu eder aretan
Jesus berbera dago
gizonen erara

Euzkotar gaztedia,
Jesus Aldaran dago
gu-gaitik loturik,
maitasunez dago an,
odol dana emonda
gure ona gaitik.

Euskalerrri maitea,
Jesus adi daukagu
maitasun guztiaz,
iñoz, ezin dau astu
erri onen bizia
gogork onenaz.

Eliza deika dago
erri onen aurrean
biotzez zabalik,
euskaldunentzat nai dau
bizitz zoriontasua
on-giroz beterik.

Lurtar pozkariak
ondasun gitxi dira
gizonarentzako,
Kurutzeko odolak
geiago eskeintzen dau
giza bizirako.

Paulin



Oharra:
Eskatu gure egutegia (takoa)
(Euskerazaleak)

ORTUKOAK

Antxiñako gizonak, leizetan bizi zanak, basoko landaren igaliak jaten ebazan. Afrika´n eta Australian badago oraindiño gaur be orrelan bizi dan jentea.

Karlomagno´ren denporan berrogeta iru baiño ez ziran etxeko ortuan lortzen ziran igaliak emoten ebezan landarak.

Frantzia´n IV Enrike errege zala, Serra´tar Olibier jaunak munduaren lau aldeetatik ekarri ebazan orturako landarak eta gaur ortutik ateraten doguz janaria damoskuen igaliak eta oneik mineral-gatzak, burdiñea eta bitaminak ugari daukez.

XIV Luis Frantzia´ko “eguzki Erregea” izan zan lenengoz zanaoriz eta idarrez bere agoa gozatu ebana.

Gaur mota onuratsuak aukeratzen dira ortuetarako, batzuk ez dakigu nondik etorriak diran, tomatea esaterako.

Antxiña Nilo-inguruetan sortzen zan sandia. VIII gizaldian Karlos erregeak ekarri eban meloia Napoles´tik Frantzia´ra eta IV Enrike oso meloi-zalea zan. Iñoz meloi larregi jan ebalako bere urdaillean kaltea be izan eban.

...



Ortuko janariak.

Orain urte gitxi, Auñamendi-gaiñean txabola baten atso bat bizi zan. Onek esaten eban lez, bere ama ari bateri lotutako azukera-koskorra gosari-katilluan sartu eta atera ibiltzen ei zan. Azukera orrek gaurkoa baiño denpora geiago bear izaten eban urtuteko, baiña koskor bategaz etxe guztientzat bear eban beste azukera eukiten eban.

Indar-iturri dan janari gozo au antxiñatik zan ezaguna India´n, K.a.gizaldi bi lenago Txina´ra zabaldu zan azukera-laztoa. Gero arabiarrek ekarri eben Lur-Arte itxaso ingurura eta 1506n. urtean eroan eben españatarrak Ameriketara.

Landara au ezin bizi leiteke giro beroetan baiño.

Mota asko dauz azukera-landara onek, oriak eta ubelak ezagunenak. “Lasto bikaiña” deritxonak, ondo bakoitzak amar kilo zuku emoten dauz eta ortik kilo bi azukera ateraten dira.. Ektarea batek amabost tone azukera garbi emoten dauz.

Ondo bakoitzak lau edo bost urte iraun leike eta gero aldatu egin bear dira ondoak.

Bein baten ango jentea asarre ebillan azukera-arloetara

zukeak sartzen ziralako. Saltamatxiñoak ekarri ebezan eta oneik garbitu ebezan bazter guztiak. Saltamatxiñoak zer-janik ez eukenean, txori-abietara sartzen asi ziran eta ingurua txori barik geratu zan eta azukera artera kaka-raldoak sartu ebezan eta ugaritu egin ziran.

Ba-dagoz azukerea emoten daben beste ortu-landara batzuk be. Erromalaxea edo arbi nagusia, uretako arbia, artoa, astigarra... Palmondo batzuk be azukera baltz ona emoten dabe.

...

Lur-sagarra eta garia dira lurralde epeletan garrantzi aundiko landara jangaidunak.

Baiña lur-sagar edo patatea luzaroan ez zan ezagutu. XVI gizaldian

LANDARAK

agertu zan XVI Luis Erregearen maian.

Andes mendietan berez sortu eta azten da eta Txile ta Peru'n ibarretan ereiten eben Kristobal Kolon ara eldu baiño lenago. Españatarrak ara eldu ziranean arrituta geratu ziran landara areik ikusi ebezenean eta errietara ekarri eben.

Inka endakoen artean ez zan lur-sagarra etxeratu, baiña astiro-astiro zabaldu zan Amerika osoan eta Europa'ra be ekarri eben 1565n. urtean, lenengo John Walter'ek Irlanda'ra. Au lurralde txiroa zan eta pozik artu eben, baiña ordurako Galitzia'n be zabaldua egoan. 1600n. urtean eldu zan Inlaterra'ra, Alemania'ra eta Frantzia'ko sortaldera. Frantziarrak ez eben onartu eta abereentzat eta txiroentzat dala ona esaten eben.

Parmentier eritxon lugin ospetsu batek irakatsi eban lur-sagar gozoak lortzen

...

Urriñetik etorritako ortu-landarak askotarikoak dira

Espeziak izan dira edestian ospetsuak. Kolon eta Basko de Gama espezia onein billa ibilli ziran, gozagarri onek arabiarrek eta karu saltzen ebezalako, India'tik eurak ekarrita. Esaterako usain gozoko kanelea, Poinvre'k ekarri eban piper baltza, au eun milla tonelada inguru artzen da munduan.

Bainilla gozoa Ego-Ameriketan sortzen dan bedarra da.

...

Baiña goazen igalidun landaretara.

Zoragarriak gure ortuak geriza gorriak landaretan ikusten diranean! Edo San Martin-inguruan batzen diran azkenengo sagar eta madariak elduta dagozenez! Maiaztetik asira ordura arte izan dira janari igali gozo oneik.

Txertatzaille trebeak be lan ona egiten dabe igali oibeak lortzeko.

Egoaldeko eguzki bizia dagon lekuan ederrak eta gozoak dira laranjak, mandarinak. eta limoiak, bitaminaz beteak.

Igali-mota bakoitxak bere azia dauka: matsak azi zeia, aranak azi bakarra azurraren barruan, kerizeak be azurduna, malluki gorriak bere gorritasunean dauka azi, sandiak eun-bat azi dauz sabel biribillea gordeta.

Igali-landara oneik, batzuk, bidai luzea egin dabe gugana etorteko: Intxaurrak eta gaztañak esaterako:

- Ni Txile'ko maillukia naz eta 1712n. urtean ekarri ninduan Europa'ra Freseur jaunak eta zuek urteko sei illebetea jaten nozue.

- Nik Tao dot izena-diño mertxikondoak- eta nire aita Txina'koa zan, ango oianetan jaiio nintzan. Lur osoan milloi bi tone mertxika batzen dira.

- Ni oraindiño be basati bizi naz Turkestan'en-diño almendroak- baiña orain irureun mota gara.

- Ameriketatik etorria ei da matsa eta ni be bai -esan eban madariak-, baiña Europa'n eta Asia'n ugari aurkituko nozue.

- Ni Siria, Turkia ta Iran'en, lurralde beroetan, sortua naz -esan eban ikoak-

Gizonak mota guztiak obetu deta mamin uts, azi bakoak, sortu ditu, baiña gizakiak ez dau lortu okarana sagarrak emoten ipinterik

...

Basamortuko on-une edo oasis'e an oxifetik ura ateraten eban sokeari tiraka astotxuak. Beduino zarra astotxuari begira egon eta antxe geratu zan bizi izaten, ganbeluen oinkadai jarraitzen ibilli barik. Berreun urtekoa zan palmondoaren abotsa entzun ebala uste eban: "Lagun, buzti egidazuz oiñak, ni esku-zabala nozu, nire datil gozoak jango dozuz, zure baratzaren esia neure egurrez egiña da, eta astotxuaren lokarria neure ari biurriakaz egiña da. Larogeta zortzi milloi anai dodaz munduan.

Beduino zarrak erantzun eutson: Zu zara beartsuen arduradun, bizi oraindik luzaro!

Urriñeko igale-landarak munduan zabaldua dagoz.

Olazar'tar Martin'ek

* * *

BIZKAITARRAI-BIZKAIERAZ*



ALDIZKARI ONEK
BIZKAI'KO FORU-ALDUNDIAREN
DIRU-LANGUNTZA JASO DAU

II. ALDIA: IPARRALDEKO IDAZLE ZARRAK

LENENGO LIBURUA: ETXEPARE

Euskalerrria eta euskerea beti izan dira baztertuak, aldi baten Naparroa izan ezik. Etxepare izan zan lenengoz liburu bat idatzi ebalako arro agertzen jakuna. 1545n. urtea zan eta Linguae Vasconum Primitiae latinezko izena eroian liburuua, ilerki liburuua zan, arlo batzutan gaztelerazko Libro del Buen amor eritxon eta Ita'ko Artzipresteak idatzia zan liburuaren antzekoa gauza batzutan.

Amabost-amasei koplak dira: Erlejiño olerkiak 595 bertso, maitemiñezkoak 403, giltzapean egiñak 102. Kontrapasa ta Sautrela euskerea bera goratzeko egiñak dira eta 59 bertso dira orretarako. Guztiz 1.159 bertso-lerro. Geienak 15 silabakoak dira zortzigarrenean etena daukela.

Zer esan lenengo liburu onen balioari buruz?

Orixe'ren ustez, "Etxepare ez da biotzaldi aundiekiko poeta, baiño bai leguna, itz utsik eztuna, jasoa,"

Mitxelena'k beste au diño: "Naiz erlejiño barrutian naiz bestelakoetan, beti adierazi oi du txit jatorki barruan daraman biotz-eragiña... Errealista duzu».

SAUTRELA

Heuskara, lauda ezak Garazi'ko erria,
Zeren handik uken baituk behar duian tornua;
Lehenago hi baitintzan lengoajeetan azkena,
Orai aldiz izanen iz orotako lehena.

Heuskaldunak mundu orotan preziatu ziraden,
Bana aien lengoajiaz bertze oro burlatzen,
Zeren ezein skripturan erideiten ezpaizen.
Orai dute ikasiren nola gauza ona zen.

Heuskaldun den gizon orok altxa beza buruua,
ezi huien lengoajia izanen da floria,
Printze eta jaun andiek, orok haren galdia,
skribatuz al balute ikasteko desira.

Desir ura konplitu du Garazi'ko naturak,
Eta haren adiskide orai Bordel'en denak;
Lehen inprimatzaillea heuskeraren hura da;
Basko oro obligatu jagoitiko zargana.

Etai lelori, bai lelo leloa zarai leloa.
Heuskara da kanpora eta goazen oro dantzara.

Ezein iaunek eztu nahi mutil gaixtoa eduki,
Ez pagatu soldatarik zerbitzatu gaberik.
Iangoikoa ari duzu hala hala gureki:
Gloriarik ez emanen hongu egin gaberik.

Poz aundia agertzen dau Etxepare'k lenengo liburuua irarkolaz agertzen dauanean eta poz ori euskaldun guztien biotzetara zabaldu- bearrekoa da, beste elerti batzuren maillara eltzen garalako. Ez dau iñor kikildu bear liburu orren idazlea abadea izateak eta geienez erlejiño-gaia azaltzeak. Orrelantxe jazoten da beste elerti batzutan be. Gogoratu "Mester de Clerecía" gazteleran.

Gaiñera gizabideko maitasuna be bere gardentasun eta gordintasun osoan agertzen da.

Euskeraz gitxi idatzi dala esaten da, baiña ori ez oso-osoan egia, bai liburuak baiño lenago erri-elertiak eta bai liburuak agertzen asi ziranetik, ez da ain urria gure elertia

Olazar'tar Martin'ek

OIU EGINGO

Mutiltxo maitegarri,
txit, gozaro, bizi da
baserri pozgarrian,
mendira adi dago
amets gozoenetan
goiz aintzagarrian.

Kantu kantari dabil
eguzkiaz batera
poztasun guztiaz,
jakituriz beterik
ikusten dau zelaia
lora zuriagaz.

Kantu kantari dabil
lurraren ederragaz
biotza pozturik,
sagasti orleiari
abesti pozgarria
eralkiz gogotik.

Kantu kantari doa
mendi magaletara
goiz zoragarrian,
guztia, eder, dakus
bei zuri gorrientzat
zelai orlegian.

Abesti samurrenak,
goiz, oiukatzen ditu
eskola bidean,
jakintsu izan nai dau
gogorik onenagaz
euskaldun artean.

Erritar sentitzen dau
bere bizitz maitia
txiki-txikitatik,
dana erriarentzat,
zuzendu gura leuke
jakintzaz ondutik.

Paulin

SALMOAK

84A. JAUNA ZERURA IGON ZAN

1

Jesus zerura igo bear zan
eguna eldu zanean,
eun da ogei pertsona ziran
zenakulon zeudenean.
Bertan amaika apostoluak
jatera zijuaztenean,
Jauna sartu zan eta berekin
jan zuan maitasunean.

2

Jesus zeguan aintzaz brillante
edertasun aundiakin,
bazkal onduan esana zien
alaitasun goxuakin:
“Aitak” emandit eskubidea
zeru ta lurrekoakin,
zueri ematen dizuet nik
Eleiza ta lur danakin.

3

Biotz gogorrak izan zerate
Ni piztuta sinisteko,
baiñan eldu da denbora ura:
zuek maixu izateko,
fedearekin gizon danari
Berri ona zabaltzeko,
neri entzun didazuen eran
zuek erakutsitzeko.

4

Bataiatu itzazue danak
sinismena duenean,
Aita, semea ta Espiritu
Santuaren izenean.
Sinistu eta bataiatua
salbatuko da iltzean,
eta sinistu nai ez duana
leizera kondentatzean.

5

Eun da ogei jende aieri
esana agerturikan:
“Seme maiteak, Aitarengana
gora nua lurretikan.

Bere barrutik atera nitzan
danok erostegatikan;
nere Ama lagatzen dizuet,
zuen Ama da gaurtikan”

2

6

Jaunak esana: “Izan zazue
Pedro Eleizan burua,
ta zuek bizi mendetasune
egiaz bere gogua.
Joan eduki nere Amaren
seme, nik seiñalatu;
ez jun emendik, nik bizalduko
det Espiritu Santua”.

7

Jaun Espiritu Santua artzen
dezuela jun izlari,
“Jerusalen da Samaria ta
esan munduko danari”.
Anka-markak lurrean lagata
gora igo zan Jaunari,
danak gegira gelditu ziran
beren Maixu maiteari.

8

Bi ingeruak gizon-itxuran
esan zien gizonari:
“Galileatar gizasemeak,
ez begiratu goiari.
Ikusia dezuen bezela
igotzen Jesus Jaunari,
ikusiko dezue etortzen”.
Ta poztu zien danari.

85A. ESPIRITU SANTUAREN ETORRENEA

1

Salbatzailleak eskatu zion
bere “Aitari zeruan”
Jaun Espiritu Santua eman,
agindua dan moduan”.
Ama Birjiñak ordua zala
argiz ezagutu zuan;
lurrean auspez, “Bizaldu, Aita”
eskatu zuan orduan.

Birjiñak esan errezatzeko,
jarraitzeko otoitzean,
zenakuloan zeuden danari:
eun da ogei batean.
Ala zeudela sentitu zuen
trumoi, tximistaz batean,
etxe barruan gelditu zala
bakoitzan buru gaiñean

3

Jaun Espiritu Santuak danak
doiaez bete zituan,
ta auek danak baiño geiago
Birjiñak bakarrik zuan.
Baitatze danak baiño geiago
Jauna abesten zijuan,
bere emazte zuan Birjiña
Jaunak bixitatu zuan.

4

Apostoluak bete zituan
Jaun Espiritu Santuak,
eta grazi au ez galdutzeko
ziraden konfirmatuak.
Ikasle eta an zeuden danak
artu bakoitzak naikuak.
Suzko trumoi oi ikusitzera
eldu ziran auzokuak.

5

San Pedrok lenengo sermoiakin
konbertituak ziranak
asko ziraden, Jesus iltzean
pena samiñak izank.
Eta Jesusen kontra arrabi
aundiakin zebiltzanak,
lurrera auspez erori eta
iru orduz egon danak.

6

Jesus ain gogor zigortu zuen
gizon biotz gabekuak,
erori ta beren odoletan
gelditu ziran ituak.
“Bere odola betoz gugana”
eskatu zuen gaiztuak;
gelditu ziran oso gaixorik

berak ta ondorengiak.
7

Apostoluak, Jaun Espiritu
Santua artu onduan,
izketa asko zekizkiela
gelditu ziran munduan.
Ama Birjiñan baimenarek
atera ziran orduan,
Jaunaren naia erakusten
beren bizitza osuan.

8

Iru milla konbertitu ziran
San Pedroren itzaldian,
Eleiza jarri bear zalako
munduko leku guztian.
Ama Birjiñai kontatutzero
juan oi ziran poz aundian,
Birjiñak otoitz egiten zuan
guztien alde etxian.

86. ANDRA MARIA'GAZ OTOITZEAN

1

Pedro santuak konbertituak
ekarririk Amagana,
esana zien: "Auxe da gure
Maixuaren Ama dana,
birjiña zala kontzebitua
birjin zala jaio zana;
fedea izan dezazuela
sinistutzeko esana".

2

Eskatu zien auek Pedrori
Ama oni eskatzeko:
"Beraren itza entzun nai degu,
ixilik ez bizaltzeko".
Pedrok bazekin dana zekilla,
eskatu zion pozteko;
"Andrea, entzun seme aueri,
eske daude entzuteko".

3

Ama Birjiñak esana zien:
"Nere senide maitiak,
Jaunari eman eskerrak kantuz
goratuaz egiteak.
Izan zerate aukeratuak,
jarraitu egibideak,
bataiatuta izan zaitezten
Jaungoikoaren semeak.

4

Ni eskeintzen naiz zuen mendeko
bearrean laguntzeko,
nere semea dan Jainkoari
zuen alde eskatzeko,
Aita bezela begizatuaz
zuen biotzak pozteko,
graziaren bitartez zueri
arpegia agertzeko".

5

Argiz beterik gelditu ziran
Birjiñari entzutean,
eskatu zien bedeinkatzeko
bere ondotik juatean.
Apostoluak ta ikasleak

Jaun Espirituz betean,
milagro asko egin zituen
gizon-taldean artean.

6

Apostoluak Jaunaren itza
zabaldutzen zebiltzala,
zazpi egunez ikusi ziran
bost milla bildu zirala,
Ama Birjiña erretiruan
otoitzean zeguila,
bere otoitzak doblatu zitun
Jaunak argitu ditzala.

7

Pedro santuak emana zuan
lenengo meza santua,
bataiatuak emana zien
Jaungoiko kotsagrata.
Ama Birjiña izan zalako
Aitari au eskatua,
bere baimenez Eleiz berria
degu munduan sortua.

8

Pedro santuak lenengo aldiz
kotsagratu zuanean,
argi aundi bat aingeruakin
sartu etxe barrunean.
Juana zan Ama Birjiñagana
an ikusten zeudenean,
San Pedrok Jauna emana zion
debozio aundiñean.

Aldalur'tar Justiñe
(Klaratarra)
(Gasteiz)



Bilbao
UDALA
AYUNTAMIENTO

IPUIN SARIKETA (BILBAO'KO UDALAREN BABESPEAN)

- EUSKARAZALEAK ALKARTEA'K, urte guztietan lez aurten be, ipuin sariketea iragarten dau, oiñarri-arauak oneik dirala:
- Ipuñiak euskeraz eta erriak erabilten dauan euskalkia erabilliaz idatziak izan bearko dabe eta idazkerea, EUSKERAZAINTZA'k argitaratua eta ZER aldizkarian erabilten dana.
 - Ipuinak asmatuikoak edo erriak batuak izango dira, ez idatzita dagozanak edo itzulpenak.
 - Luzeera iru orrialdetik laur orrialdera, idazkiñez idatzita eta bitarte bi dirala. Saria irabazten dabenak ZER'en argitaratuko dira. Sariak irabazten ez dabenak be bai ipuñiaren barrenean idazleak baimena emoten dauanean.
 - Azillaren azkenerako EUSKARAZALEAK ALKARTEA'ren etxean (Bilbao'ko Colon de Larreategi, 14, 2ª eskoia) egon bear dabe. Abenduaren azkenerako emongo da maikoen erabagia eta Zer'en agertuko da, Urterillean, baita DEIA Egunkarian be albait lasterren.
 - Sariak bost izango dira:

1.ª 300,50 euro	4.ª 120,20 euro
2.ª 240,40 euro	5.ª 60,10 euro
3.ª 180,30 euro	
 - Ipuñiak zein ordeagaz bialdu eta karta-azal txiki baten barruan izen-ordea ta izena.
 - Epea abenduaren azkenera arte luzatzen da.

EUSKARAZALEAK

10.– BURU ARGITIK ZENTZUNETARA

Asi Deskartes´egaz eta Malebrantxe, Spinoza ta Leibniz bide dirala, aurrerapen aundia egin dau filosofi barriak edo modernoak, buru-argi zaleai eskerrak.

Baiña jakinzaleak edo filosofiak beti dabiltz gauza barrien billa, eta sarritan esan dodan lez filosofiaren ardatza Aristoteles de Akino´ko Tomas izan arren, Platon´ek idegi eban bide illuna itxi eta Aristoteles´en oreka arkitzen dogunean, beste jakin-zale talde bat izten dogu bidean, Aristoteles euren erara ulertu eta zentzunen bide-ara doazen jakinzaleak., empiristak.

Esan dogu buru-argi-zaleak oso jainko-zaleak eta erlejiño zaleak izan dirala, eta beste zentzun-zale oneik be oraindiño bide orretatik doazela ikusten dogu, zorionez.

Buru argi-zaleak geienak Europa lur zabalean aurkitu doguz, baiña zentzunetara doazen jakin-zale oneik,geienak, angloen lurraldean aurkituko doguz.

...

FRANCIS BACON (1561-1626)

London´en jaioa dogu eta Cambridge´n ikasia. Or eza-gutu eban Aristoteles, gero Paris´era joan zan, laster barri-ro London´era biurtzeko. Politika-lanera sartu zan,baiña bialdu egin eben ustelkeriagaitik.

Jakituriaren oiñarria aurkitu nai dau,Descartes´en antzera eta auxe da artzen dauan bidea:Bizitzarako onuragarria dana, orixe da zientzietan egia.. Orregaitik asmakizun barriak asmau bear dira eta izadia menperatu., eta orretarako lenengo izadia ondo ezagutu bear da.

Zentzunetatik asi bear dogu eta egi aundiak aurkitu; lojikaren ezerezeriak alde batera itzi, adimena orreititik garbitu eta izadia bera dan lakoa aztertzen alegindu. Garbitu bear dana, Bacon´en ustez Aristoteles´en bide osoa da,berarentzat Aristoteles ez da sofista bat baiño

Adimena garbitu ondoren,izadiko bizi-ikasia,eksperimentzia artu bear da eta ortik atera jakingarriak.Ori da bide bakarra,zentzunena

Aristoteles antikristoaren irudia dala diño.

Bacon dogu ba,filosofiaren edestian teknolojiaren bidera lenengoz sartzen dana.

...

THOMAS HOBBS (1588-1679)

Au be Anglanderrian jaioa dogu,anglikanuen Artzain baten semea. Oxford´en ikasi eban eta gero Europa´n zear ibilli:Bacon ezagutu eban, baita,irugarren ostera baten, Galileo,Gassendi ta Descartes be.

Onen pentsabidea materialista da,materia ez dana ezin izan leiteke eta dana da materia, espirituak eurak be bai, eta aldakuntza guztiak ez dira mekanikuak baiño, dana da materia eta eragiña,mobimentu

Gauzak ondo ezagutu bear dira, Descartes´en antzeko bide bat artuta eta Galileo´ren bideari jarraituz.

Gure pentsakizunak ez dira irudiak baiño eta irudiai berbak ezarten dautseguz, ez dago idearik

Gizona materi utsa da, baiña buruargia eta irrikak daukaz,pasiñoak,batez be guraria ta gorrotoa.

Gizonak ez dauka askatasunik, materi utsa dalako.

Orregaitik,gizakia ez da gizartean bizi izateko egiña, gero sortu eban gizartea. Izadiak dana guztientzat emon eban, baiña gizartera sartu dan gizakiak gauzak beragandu egin nai dauz eta ortik datoz guda guztiak, “gizakia beste gizaki batentzat, otsoa da”.

Orregaitik munduan bakea sortzeko, Lebiatan deritxon laterria sortu bear izan da eta onek sortzen dau eskubidea, legeak egiten dauzanean. Orretarako egiten dau gizakiak “gizarte-ituna” paktua. (Ez dautzu gogoratzen laster etorriko dan Voltaire?)

Lebiatan ori Jainkoa da, baiña jainko ilkorra.Bere eskubideak erritar guztiakandik eta bakoitxagandik artuta daukaz eta ondo egiten dau ardurak eta ooreak emotegaz. Berak bakarrik esan leike zer dan zuzena eta zer okerr(Durkeim?). Gizakiak ez dauka askatasunik legerik ez dauken gauzetan baiño.

Eta erlejiñoa? Gizarte-ituna egin zan ezkerro,galdu zan erlejiño-eskubidea.Laterrian dago erlejiñoa, erlejiño bakarra, Biblian ondo ouiñarritutako erlejiñoa.

Hobbes´en irakatsietan daukazu,iturrian lez, garo etorriko dan politika-erakundea.

...

JOHN LOCKE (1632-1704)

Bristol-ondoan jaio zan eta Weestminster´en ikasi.Gero Oxford´en.Ikastetxe nagusi au dogu enpirismuaren iturri.

Abade ikasten asi zan baiña urten egin eban,osagilletza ta kimia ikasteko.

Gai bi aztertu ebazan batez be: Ezagutzea eta politikako filosofia.

Ezagutze-bidean,ziurtasuna noraiñokoa dan jakiteko gure ezagutze-bidea da bere arazoa. Descartes´gandik zerbait artu eban, Bacon eta Hobbes´egandik be bai, baiña oiñarrian nominalismo adauka bizi-bizi.

Lenengo adimenak bertan sortuta daukazan burubideak ukatzen dauz eta Descartes´ek txarto egin ebaladiño bere ezagutza-bideko zalantza orokorrak (duda metodika)

burubide bertan jaio(innatas) orreitaraz ez sartzea. Dana dator gauzak ezagutzeko,zentzunetatik.

Buruan dagoana dana da idea eta dana etorri da zentzunetatik,gero adimenak egiten dauz bere azterketak. Idea orreik ba-daukez izaera batzuk, baiña buruan ez, kanpoan, eta buruak alkartu egiten dauz izaera orreik.

Idea batzuk buruak berak osotuak dira, ez dagoz kanpoan, esaterako zertasuna edo sustantzia, batzutak gorputzekoa beste batzutan gogozkoak.Jainkoaren maitasunak egin dauz gure zentzunak ezagutzeko modukoak.

Neure burua ziurtasun bakoa ikusteak, Jaungoikoa badagoala agertzen daust.

Jokabideen elburua ez da besterik geure zoriontasuna billatzea baiño,ona eta txarra izenak baiño ez dira eta atsegingarria eta mingarria esan nai dabe.Danaren gainetik Jainkoa dago eta onek bideratzen dau gure jokabidea.

Garrantzi aundia emoten dautso Locke´k jabetasunari eta orrelan bidea zabaldu eutson Adam Smith´eri bere ekonomi liberala asmatzeko.

Laterria sortzeko bidean,iru almenak,legegintza,betekuntza eta epaitegia ondo bereziten dauz. Gero agertuko diran gauzak emen dauke sustraia. Laterrien arterako almen alkartua edo federatiboa ipinten dau,au gero galdu egin zan tamalez.

Laterria ta erlejiñoa banatuta ikusi gura dauz,bata gizonak alkartzeko eta bestea Jainkoa serbitzeko, baiña laterriak ez dau aske itzi bear laterriari kalte egiten dautsona, esaterako ateismoa ta katolikotasuna. (Jakitunak be sarritan tzikiak!)

...

GEORGE BERKELEY(1685-1753)

Irlanda´n jaioa dogu, Dublin´en ikasia anglikanuen abade izateko.Misiolari joan zan Bermudas ugarteetara.Gero Anglikanuen gotzain izan zan.

Onen filosofian, oiñarria materia ukatzea da. Eta danak daroa erlejiño-usain aundi bat.

Buru argia ondo erabiltea da benetako erlejiñoaren oiñarria.

Gauzak ezagutzeko bidean, zentzunak artzen dauz oiñarri lez. Idea orokor edo unibersalik ez dago, guztiak dira banakakoak,zentzunen inpresioak eurak. Gauza bat izatea eta ezagutua izatea,dana da bat eta guk ezagutzen ez doguzan gauza asko Jaungoikoak ezagutzen dauz eta orregatik, ba-dira. gauzak ezagutzen doguzan neurrian dauke izatea.Idealismo argia! Baiña zentzunetatik artua, ez buru argitik.

Gogo utsak dira ezagutzen dabenak, eta ori egiten dabenai adimena esaten jake.

Eta Jainkoa? Izadiak agertzen dasku Jainkoa, gauzak izan ba-dira,Jainkoak ezagutzen dauzelako da.

Enpirismoa onartu ezkerro,lojikaren barruan doa Berkeley´ren bidea, baiña beti be onartzen dau Jainkoa badagoala eta arimea il-eziña dala. Enpirismo zeatz orrek ba-garoaz Hume´ren filosofira.

Olazar´tar Martin´ek

AFRIKA

24.– Zanbeze´ko ur-jauziak

Eun urte baiño geiago dira Libingshton misiolari eta ibiltari ospetsua gaur Rodesia dan lekura eldu zala eta “ke trumoigillea” zer dan ikusi nai izan eban.

Zanbeze´ren bee-aldera joiala, entzun eban trumoi-zaratea eta keea be bai ikusi eta batera ibai zabal bat goitik beera. Libingston´ek Bitoria ur-jauziak aurkitu ebezan. 120 neurkiñeko ur-jauzia da, Niagara lako bi. Eta 1.600 neurki ditu zabal. Basoa ikustera doazenak kilometroetan ikusten dabe ke-trumoigillea, eta egazkiñean doazenak 160 km´an. Orrek pilotoari bidez ez galtzeko lagutzen dautso.

Gaur ostatu-etxe eder bat dago ondoan eta txangolarentzat trena be ba-dago. Ostaturik eun metrora leoiak, elefanteak eta basapizti asko dabibiltz orroaka.

Orra or Afrika basatia.

25.– Basapiztiak

Tximiñoirik aundienak gorilak dira, baiña baketsuak. 250 km. dauz. Iñok ez dau ilten sendia zaintzeko izan ezik.

Ez dira aragi-jaleak, landare-jaleak baiño.

Beste pizti batzuk: Okapiak jirafa ta zebraren nastea dira, bongoa lerrodun marruagaz, antilopeak, tximiñoimota asko.

Ibaiak dira endak eta erriak alkartzen dabezenak. Kongo ibaiak 4.000 km. dauz eta toki batzutan 12 km. zabal. Eta zazpi Frantze´ren besteko lurraldeak buztiten dauz. Ontziak ibiltzen dira ibaietan, baiña kataratak agertzen diran lekuetan ezin ibilli ontziakaz.

Afrikarrik geienak ibai-ertzetan bizi dira eta gizakien-gandik urrean piztiak be: Antilopeak, leoi nabarra, ipopotamoak, kokodriloak, elefanteak...

26.– Kontu-kontariak

Illuntzean, eguzkia eskuratzen danean, basoan aizetxu gozoak jotzen dauanean, Afrika´ko errientzat bizitza barria asten da egunero: Lanera joan diran emakumeen eta arraintzara joan diran gizonen bideak kanpoan geratu dira eta errialdea etxeetan batu da, arriskugarria dalako ainbeste basapizti dagoan basoan ibiltea.

Txabola-barruetan dagoz baiña batetik bestera sarritan joaten dira. Barre-algarak entzun daitezkez naikoa illun dagozan txabolen barrutik.

Iretargia goian argi dagon artean, ipuiñak entzuten zaleak dira. Idatzita ez dauke ezertxu be eta orregaitik orrelan doa erri-jakituria gizaldirik gizaldira eta leiñurik leiñura.

Kontu-kontaria lurrean jesarten da eta dantza-lekuaren erdian eta inguruan erri guztia batzen jake.

Kontu batzuk giza-legea, beste batzuk zuntasuna, beste batzuk ontasuna irakasten dabe ikastola onetan.

Geienak abereen gertakizunak, fabulak, dira. Gau osoa orretan!

Olazar´tar Martin´ek

ERLEA TA SASIA

ERLEA

Erle ertilaria
amets girotan doaz
egazka aidean,
zeru urdiñez dabiltz,
aizea gozaturik,
eguzki aurrean.

Adiskide on dira,
goizez, eguzkipean
eundezka izarrak,
poza ta ariñak,
edonora, daroaz
urratuz aideak.

Mendi egal liraiña,
on, dago eguzkitan
dizdira ederrez,
gozamina dario
alderdi danetatik
erlearen pozez.

Goizalde zoragarri,
gutziz, dotore dator
soiñeko urdiñez,
itxaso ta zerua
biak bat egin dira,
txit, edertasunez.

Ta erleak, goizetik,
langille zintzo dabiltz
zelai orleietan,
lorerik lore doaz
zurtasun guztiagaz
egazka aidetan.

Zurtasunak aginduz,
ezti gozo aurrean
geratuten dira,
klik-klak, ekin ta ekin,
lepoak betetuta,
ba-doaz kabira

SASIA

Solo ertzetan dagoz
sasitza nagusiak,
gogotsu, indarrez,
solo ertzak zaintzeko
bizigarriak dira
osasun ederrez.

Udarantz adi dago,
eguzkia maite dau
biotz barrenetik,
dizdizera ederrez,
pozik, agertzen da,
barrez, sasitzatik.

Gero ta sendoago,
pozik, zabaltzen doa
solo magalean,
solo maitalea da
eguzkia gozartuz
biotz barrenean.

Sasitz bildurgarria
udara adi dago
bere asmoakaz,
lurra eskertu nai dau
adiskidetza onez
lorak emonagaz.

Sasitza sendoena
lora zuritan dago
udalen goizian,
gorantza begiraturik,
indartu egiten da
lorea sasia.

Lorea garautu da
masusta biurturik
asmo onenagaz,
gositentzat jana,
gozo gozo, eginda
eguzki argiaz.

IX.-PIZTIAK ETA ABEREAH: EGAZTIAK

MOTAK:

Egazti batzuk egalariak edo egaz egiteko gai diranak doguz.

Onein artean usoak (piku laburra ta argala, egaz-aldi luzeak) euren artean mota asko dagoz.

Oillo-antzekoak(piku zorrotza, anakak sendoak, egoak laburrak, egaz-aldi laburrak). Or sartzen dira oillarra, oillora,faisana, eperra, ta galeperra.

Txoriak (txikiak izaten dira), kanarioa, mikea, belea, zozoa, txinboa, enara, martin-arrantzalea...

Uger-egaztiak (uretan ibiltzen dira baiña egaz be egin leikee,ugere-oiña dauke) Onein artean antzarra, aatea, kaioa...

Anka-luzeak . Onein artean ibis,zinkunak,uroloa, ollagorra...

Egazti arrapatariak,aragi-jaleak (piku okertua eta erpa sendoak). Batzuk egunezkoak dira (arranoa, zapelata, saia...) beste batzuk gauezkoak (gabontza, mosoi-loa...)

Egazti igolariak (erpa bi aurrera eta beste bi atzera daukez), kukua, okilla,loroa...

Egazti bular-azurbakoak (egalperra edo abestruza).

...

EGAZTI ARROTZAK:

Oneik dira esan-eziñeko edertasuna dauken egaztiak, gure begientzat oso pozgarriak. Eta euren oiturak be arri-garri biurtzen jakuz.

Gure aurretikoak “paradisuko egaztia” esaten eutsonea, egorik eta ankarik bakoa ei zan eta bere lumen edertasuna arrigarria.Eguratsean kulunkatzen zan eta bere janariak eguzkia ta lora-eztia ei ziran.

Baiña nondik sortu zan kondaira zoro au?

Gure itxas-gizonak Ozeania´ra joan ziranean an aurkitu eben egazti au baiña angotarrak egoak eta anakak kenduta emon eutsen eta orrelan ekarri eben itxas-gizonak Europa´ra. Magallanes´en lagun batek 1522n. urtean erregearentzat ekarri eban lenengo alea eta zeruko doi lez artu eben guztiak. Izatez egazti au belearen antzekoa da eta kua-kua abesten dau.

Txori-mota onein lumak apaingarri dira, kolibri txikiak eta beste batzuk atzerantza egaz egiten be ba-dakie. Onein egoak segundoko 50 ekitaldi egiten ditu.

Onein abestiak ez dira iñoz be izaten kanario batenak diran bestean politak.

Izen batzuk:Tortola, papagaioa, bengalia, kana-

rioa, kardenal gorria, Japongo urretxindorra, guakamaioa, euli-txoria, trogon, pinpin-usoa, tukan piku orlegia...

GURE TXORIAK

Amalau milla egazti-mota bizi dira gure lurralde onetan eta egazkiñik onenak be ez dabe lortu oneik dauken lako trebetasunik.

Gure txoririk txikiena txepetxa da. Benetan ikusgarria! Buztana goratuta, negurik gogorrean be orbel artean billatzen dau janaria.

Gure txoriak urtero udagoienean egoaldeko lurralde beroetara joaten dira geienak baiña batzuk geratzen dira gure artean: txantxangorria gure leio-aurrean ibiltzen dau neguan jauzi ta jauzi, bere papar gorria erakusten.

Poz aundia artzen dogu lenengo elai ikusten dogunean zeruan zirri-borroak egiten eta abesti gozoak abesten. Onexek egiten dau gugandik urren, geure etxeko atadian, bere abia. Iñok ez dautso kalterik egiten.

Izen batzuk:Txorrua, txoarrea, pirripioa,erregetxua,kazka-urdiña,buztan-ikara,arotz aundia,okil erregea,txantxangorria,txontea,birigarroa,karnaba, gallupa, eskiñoa, erle-txoria,urre-txoria,mikea,antzandobia,papar-urdiña,martin-arrantzalea...

...

UGER-EGILLEAK

Ez dira izaten abots onekoak, itxasoan bear be ez daita.

Batzuk itxasoaren barruko ur-gaiñean bizi dira eta leorrera etorten dira abiak egiteko

Batzuk entzute txarra dauke gure aldetik: Kaiaori itxas-arrapataria esaten jako, baiña polito edertzen dau itxas-gaiñeko eguratsa.

Ez dauke aize otzaren bildurrik,eta ez izotzarenik be, lumazko oskol labana daukelako eta euren gorputza beti legor eta bero geratzen da.

Egazti onein aragia geienetan ez dogu onartzen, baiña eiza-zaleak aateen billa be ibiltzen dira.

Izen batzuk:Bas-aatea, zertzeta, aate buztan-luzea, zerra, aate piku-zabala, murgil-erregea,odol-ugatzta,antzarra,sangea, kaio baltza, antxeta,itxas-elai, txe-



Egalperra (Avestruz).

nada, alka, pottorro, arao,ubarroia...

EGAZTI ARRAPARIAK

Ez dira ikusteko errezak eta aragia jaten dabe.

Egoak dira euren edertasunik aundiena, esaterako arrano arrapariak ego aundi eta luma-luzeak dauz, gora ta gora igoten dau edo zuzen amiltzen da bera, orduko 160 km. egin leikezela. Antzera egiten dabe alkoiak miruak eta sagu-zaleak be.

Ikusi dozuz iñoz txitak euren ameagaz ibilten? Ameak mirua ikusten dauanean,garrazia egiten dau eta txitak sasi-artean ostentzen dira. Miruak eta oillo lokeak burruka ikaragarria egiten dabe.Miruak txitarik arrapau ba´dau, erpen artean darioa txioka

Abi traketsak eta ezkutatuak egiten dabez, arranoak,esaterako, mendi-goietan, gizakia eldu-eziñeko lekuan egiten dau abia, eta amar asteen amak umei begiraten dautse, gero egaz egiten ikasten dabe.

Batzuk sugeak jaten dabez,alkoiak basa-erleak jatea nai izaten dau.Saiak edo putreak Andes mendietako kondorra dabe errege. Onen egoak 2´75´ko zabalerea dauke eta 5000 metrotik gorako mendietan bizi da

Gabontzak eta mozoloak txartzat artzen dira, baiña egazti ederrak dira euren begi nabar argiakaz. Gabeko eiztariak dira.

Zein da gabontzaren eta mozoloaren arteko ezbaridi-

tasuna?

Mozoloak belarri-alde bietan luma agiri bi dauz, ez gabontzak.

Euren ulua entzuten dogu gabetan.

Izen batzuk:Alkoia, mirua, gabillaua, gabontza,mozolloa...

OILLO-ANTZEKO EGAZTIAK

Oillararak goizean goiz agurra egiten dautso argiari datorrenean.

Oilloa ta oillarra Asia´tik etorriak dira baiña munduzabalean asko ta asko dira oillo-motak.Arrautzak egiteko eta aragia jateko izaten dira munduko baserri guztietan dagozan oilloak.

Oillategietan egoten da “pavo real” deritxona. Erromatarrak be ezagutu eben eta erdi-aroan maiaren apaingarririk onena izaten zan. Pintarda barriz Afrika´koa da.

Antzarrak,usoak eta aateak ez dauke ainbeste oilloantz.

Asia´n faisaiak dagoz ugari, beillegiak eta oso ederrak

Eper gorria gure arloetako egaztia da, argiak, biziak eta bizkorrak dira eta lagun-taldean bizi dira beti,umeak jaio ta zortzigarren egunean egaz egiteko gauza izaten dira. Udazkenean Afrika´ra joaten dira

EGAZTI ANKA-LUZEAK

Izatez itxas-egaztiak dira, baiña ez dira joaten uretara uger-oiñak daukezenen antzera. Epaillean etorten dira gure artera eta uztaillaren azkenean joan egiten jakuz.

Ona emen izen batzuk: Ameriketako ibis, txirria, zinkuna, koartza gorria eta lepo-zuria, piku biurriduna,egaberea, kurrilloa...

EGAZTI LASTERKARRIAK

Oneik ezin dabe egan egin ego txikiak daukezelako, baiña anak daukez sendoak eta ariñeketan dira onak, egalper-kameluak 2´60 m.´ko aundierea dauka, egazti guztietan aundiena da, eta ariñeketan zaldiari irabazi leikio.Gaiñera, zaldiak baiño geiago irauten dau ariñeketan.

Egalperrak edo abestruzak egiten dauan arrautzea oilloren ogeta lau arrautzaren besteko astuna da.

Jan urrikoa da basamortuko piztiak lez.

Izen batzuk: Kasuarioa,egalperra, kibia...

ANDRA MARI DANTZA-TALDEA

ETXEBARRI ERRIAN ANDRA MARI DANTZA-TALDEA

Antxiña Etxebarri errikoak iru prozesiño egiten ebezan, bata maiatzaren azkenengo domekan Sorkunde Garbiko Amaren irudiagaz, beste bat (au Amabirjiñearen irudi barik) Korpus Kristri egunean eta irugarrena urriaren lenengo domekan, Errosario´ko Amaren irudi bategaz.

Prozesiñoa San Esteban eleizatik asi eta gaur kamiñoa doan lekutik egiten zan; gaur ermitea dagon ondolik pasau eta Ibaizabal erreka zubi-ganetik bar La Frontera bertara arte eldu eta buelta bertan emon eta barriz eleizara.

Prozesiñoeko egunetan ugazaba jaunak tabernea zarratu eta etxea loraz beteten ei eban eta prozesiñoekoai lorak bota etxeko balkoitik.

ERMITEA

Etxebarri´n ospatzen ziran jaiak San esteban, San Ignazio, Santiago eta Santa Ana izaten ziran. 1960n. urtean Santa Ana ermitea plazan egoan eta gero gaur dagoan lekura, Bar La Frontera´ren leku orretara doan kamiño kontrara aldatu eben.

Argazkian ikusten dan prozesiñoa 1960n. maietzeko azkeneko domekakoa da eta argazkilaria Juanjo Zaguero izan zan.



Sorkunde Garbiaren irudia andatan daroen lau gazteak oneik izan ziran: Eskoiko aldetik bizkar-ganean daroana Jose Luis Rekalde eta onen atzeko aldetik datozen beste bi andariak Antonio Larrea eta Juan Migel Amuriza izan ziran. Juan Migel´ek eta Jose Luis´ek prozesiñoan garriko berdea eroan eben eta Juan´ek eta Antonio´k garriko gorria..

Prozesiñoa amaitu-orduan, alkate jaunak danai deitu eta modu

onean esan eutsen kolore berdea orduan erabiltea galazota egoala. Batzuk pelotariak be ba-ziran lez, kolore urdiña erabilten eben.

ANDRA MARI DANTZA-TALDEA

Gogoratzen nazenez, oneik bai egon ziran 1960n. urteko maietezean Etxebarri´n dantzan egiten, ermitaren aurrean, plaza-ondoan, ermitea aldatu baiño lenago. Euron artean Pedro Ignazio Artetxe “Kepa”, Pedro Mari Azkueta, Jesus Uriarte, Jerman Solaun “Kirru” eta Justo Estrada.

Etxebarri´n soñulari ospetsu bat be izan zan, Txilibrin albokariaren denporan eta bera “Kruschef” izenarekin ezagutzen zan, baiña benetako izena Jesus Azkoaga zan eta jaiotzez orozkoarra izanik Basauri´n bizi ta gero Etxebarri´ra joan zan.

Nire eskerrik beroenak zuei, Bar La Frontera´ko Maria-sun´eri eta Juan Urrutia, Jose Luis Rekalde, baita Kasimira Rekalde Kruschef´en emazteari, Etxebarri´ko lan au egiteko emon daustazuen laguntzagaitik

Nire eskerrik beroenak ZER aldizkarietan argitaratzeko emon daustiezan argazkiakaitik, naizta batzuk neureak izan, baita Andra Mari Taldea´ren asiera eta lenengo urteeri buruzko laguntza, lana eta egin al izateko bidea emon daustazuen guztiai. Oneixek dira:

Sabino Larrea, Jose Luis Egiarte (txistularia), Amantzi Meabe, Juan Orozko, “Txinberatarrak”, Jose Mari Barrene-tea, Jesus Maria Markaida (abadea), Iñaki Ibarra (abadea izana), Juan Jose Altuna (txistularia), Jose Mari Gaintza, Kontxi Gaintza, Txomin Untzalu, Jose Luis Agirre, Jerman Maeso, Rosa Mari Sagardui, Maite Urrutikoetxea, Ana Mari Atutxa, Abeli Gutierrez, Ana Mari Irigoien.

Gerotxuagokoak: Marianjeles Lara, Maria Jesus Garabie-ta, Bego Asua, Jose Mari Etxezarraga, Jesus Altuna “Dima”, Edurne Isusi, Isidro Plaza (txistularia), eta Maria Nieves Ogara. Eta nigaz 1957n. urtean Andra Mari sortu eben zarren guztiai. Sortzaille batzuk ilda be ba-dagoz.

URTEURRENAK

Andra Mari Dantza-Taldearen 50n. urteurrena dala-ta, orain aurtan, 2005n. urte onetan ospatzen dabiltz.

1955n. urtean sortu zala diño, baita 1980n. urtean 25 urte izan zirala be aitatu.

Nik argi ta garbi azaldu neban (DEIA 1979, iraillak 15, larunbata) DEIA egunkari orretan Andra Mari Dantza-Tal-dea. Galdakao´n, parroko Katoliku Ekintza 1957n. urtean sortu zala. Eta bere lenengo dantza-ekiñaldia 1958n. urteko San Andres egunean Usansolo auzoan, Galdakao´n, izan zala.

Andra Mari sortutako urtean, lenengo dantzarien maisu, denpora gitxian Iñaki Ibarra jauna izan zan. eta gero Txinbe-ra.

Baiña 1980n. urtea baiño len Sabino Larrea taldetik alde eginda egoan

lez, batzorde barri bat antolatu zan eta 1980n. urte orretan 25n. urteurrena zala errakuntzaz aitatu eben, Andra Mari 1957´an sortua izan zalako.

Denpora orreitan lenengoetariko dantzari eta irlandera taldea edo txistulari zarrenak edo Sabino Larrea bera Andra Mari´ren asieratik sekretario edo idazkari izan zana, taldean izan ba´giñan, 25 uregarrena 1982n. urtean egin edo ospatu-ko zan.

Aitauten dodan 1979n. urtean, DEIA´rako orduan Galdakao´ko Batzokiko izan zan J.C.C jaunak, Batzokitik Galdakao´ko eta Bermeo´ko jaiak iraillean zirala-ta, DEIA´n idaz-teko lan batzuk eskatu eustazan eta nik “La Anteiglesia de



Galdakaoko Acción Católica, Euskal Dantzak eta Andra Mari, Etxebarri errian.

Galdakano. El-xalde ta Guzur aratxa” “La Laureada Banda de Musica de Galdakano” eta 1914 baita 1934´ko Rondailla´ri buruz baita “Grupo de danzas Andra Mari Taldea”ri buruz be euron artean emon eta 16 argazkirekin jaun areri itzi neutsazan, neure izenean DEIA´n idazteko.

Baiña egunkari orretako langille batek, lenengo artikulua aundi bi orreik, periodismo aldetik obeto idatzita egongo zirala-ta, berenganatu egin eba-

zan eta beren seudonomoekin idatzi be.

Ori DEIA´n ikusi nebanean, nire lan orjinalarekin zuzendari jaunagana eta departamentuko jaunagana jo neban eta andik 1980n. urteko otsaillaren 18´an idatzia artu neban DEIA´ko zuzendari, lekuko nagusi eta beren seudonimoarekin nire lanak idatzi ebazan jaunagandik, irurak karta ori idatzi eta siñatu eben esanez nire lanari inbestigaziñoko seriotasuna kenduaz, jaun areik “ un sentido más periodístico” aurkituaz idatzi eballa.

ANDRA MARI 1957 ETA 1955.

Danak dakigu 1957´an sortu zala, baiña goialdean esaten dan lez, aurten 50n. urteagarrena ospatzen dabiltz.

Goazen arira. Amaia Orrantia´k Katoliku Ekintzan bertan neskai dantza-pare bat-edo irakatsi eta 1952n´ean eta 1956n´ean Egiarte ta neu txistulari nintzazala dantzatu-ondoren, 1956n. urte berean Egiarte´gaz, Etxebarria jotlariak jota, pausu batzuk irakasten ebillen. Gero guztietatik batzuk 1957n.´ean Andra Mari dantza-taldearen sortzaille izango gintzazanak.

Urte areitatik asita, 50 urteak kontatzen ba´dabez asiera 1955´an emonda, ba bueno, ontzat artu leike, ez Andra Mari´ren sortuera, ezpadaze Andra Mariko Sortzaille 50n. urte-urrena, nai ta geiago be izan. Ori ondo dago. Baiña ori orrelan ba´da, orduan urterillan, 2005n. urtean ZER aldizkariko 17n. orrialdean, errubako eta beti egiagaz dabillen Jose Mariano Barrenetxea batzordekoaren artikulua guzurragaz zergaitik lotsatu, lotsarazi eta zigorkatu? Olangoak egiten ba´dira, nora

goaz? Gaiñera 1957´an sortu zan Andra Mari Taldearen Sortze-agiria edo “Acta Fundacional” bat be ba-dago.

NIRE ERRAKUNTZA BATZUK

Orain amar urte-inguru, Andra Mari Dantza-Taldeak egin eban liburu aretan, neuk be lan bat eurak eskatuta egin neban. Nire artikulua “Galdakao soñuz, dantzaz eta kantuz” izenarekin 59n. orrialdetik 66n.´era arte izan zan., baiña 63n. orrialdean errakuntzaz auxe diñot:”Eta taldeari ensaio batzuk egitera, Bilbo´tik, Gaztedi Dantza-Talde´ko Txinbera etorri zan. Eta mutillen batzuk be zortzikoaren dantza ikasteko gogoagaz egon arren, dantzak ikasi eta dantzatu neskak baiño ez ebezan egin”.

Alde batetik Etxebarria´ren jota-pausuen irakasketaz nastau neban mutillena, eta neskak eurak eta Txinberak berak be esan eustan 1957´ra arte ez zala Galdakao´ra etorri. Abeli Gutierrez andereari be galdetu neutsan eta esan eustan argi ta garbi berak Txinbera´gaz ikasi eballa dantzan eta 1956-12-8´an ez eballa dantzarik ez ikasi eta ez egin, beren aita urte orretako martian il eta 8 illebeste geroago Galdakao´ra biziten etorri ziralako.

DEIA 1979-9-15. Andra Mari Dantza-Taldearen artikuluan taldeko argazkiak gaizki ifinita deko 1958n. urte, 1960^a da-ta.

Jose Mariano Barrenetxea



OARRA:

ZER 308n´ean 12n. orrialde-inguruan Jose Luis Barrenetxea “Txelu” esaten da eta esan bear zan Jose Luis Etxebarria “Txelu”. Amairugarren orrialdean diñot Txomin, Begoña´n jaio zala, baiña Iturburu-Bekoa, Urazurrutia´n jaioa da.

Nik egi garbia azaltzen dot, baiña dantzari buruz egin dodazan lanak norbaitek ontzat artuko ez ba´leuz, kontrastau bedi ia lenagotik nongo txistulari, nongo dantzari maixu eta nongo dantzariekin dantzatuko ete zan.

ABIZENAK

Barañano: Zeberio'n agertua da eta gero Barakaldo'n.
B- gero ezarria da -aran- aran-landarea (endrina) eta -
ano toki-atzizkia.

1651n. urtean Bilbao-n agertu da idatzita.

Barasoain: Baratz- ortua da eta -o- tokia, -ain gainean.
Ortua dagon tokiaren gainean.

Baraiazarra: Gipuzkoa'n agertu zan.
-Arai-ireia da eta b- gero ezarria. Eta -zarra aundia da
(ori da txakur zarra!) edo landu bakoa (lur barria ta lur
zarra). Orduan: Iraileku landu-bakoa).

Barzena: Mena'n, Gordexola'n, Zalla'n eta Karrantza'n
agertua.

B-gero ezarria, -arze- artea da eta -na toki-atzizkia.

Bilbao'n agertzen da idatzita 1670n. urtean.

Barea: Biana'n agiri da 1307n. urtean. Bara- irea da eta -
a toki-atzizkia.

Barrondo: Arrankudiaga'n agertua da eta Berrondo'ren
aldakuntza.

Barro eta berro aritz txikia edo "jaro" edo olakoak
dagozan berezia da.

Bereziaren ondokoa.

Berriaga (Barriaga): Berri "jaro" edo aritz txikia da eta
olakoak dagozan tokian da Berriaga. Ez dauko zer-ikusirik
"Barria/nuevo" gaz.

Barroeta: Bizkai'tik asita Euskalerrri osoan dago.

Aritz txikiak edo "jaro"ak dagozan lekua da.

Basagoiti(a): Aramaiona-n asi eta gero leku askotara.

Basoaren goi-aldean dagoana da.

Bilbao'n idatzita 1801n. urtean.

Basaguren: Abadiano'n eta Larrabetzu'n.

Basoaren goi-aldean dagoana da.

Elgoibar'en 1741n. urtean.

Basauri: Bizkaia'n erria, baiña Oñate'n be agiri zan.

Basoa dan aldepea esan nai dau.

Oñate'n 1660n. urtean. Oñate'n 1464n. urtean abizen
au agiri da.

Baseta: Baso asko dagon lekua. Ernani'n 1622.

Basterra: Gasteiz, Orozko, Bilbao.

Berbeak diñoana: Bazterra.

Bastegieta: Ajangiz'en sortu zan.

1662n. urtean Lumo'n dago.

Astegieta'ren aldakuntza da eta au, -aste artea'tik
dator. Orduan artean dagozen ikuspegia.

Bilbao'n 1739.

Basterrika: -Aztar- sasia da eta B-gero ezarria, -ika,
ostera, toki-atzizkia.

Sasia dagon lekua.

Azkoitiar batek eukan abizen au 1484n. urtean.

Bastida: La Bastida errian sortua da (Errioxa'n).

Ez da abizen euskalduna. Kataluniar batek guda-izki-
llu bat asmau eban izen au eukana eta abizen lez artu
eban.

Zabal dabil Euskalerrrian eta etxe sendoa esan nai dau.
1520n. urtean Balladolid'en agertzen da.

Basurto: Gaur Bilbao dan Abando'n agiri da idatzita
1445n. urtean.

-asur-sasia da, B- gero ezarria eta -to toki-atzizkia.

Sasia dagon lekua da.

Baxeneta edo Bajeneta: Arrieta'ko Jainko auzoan
etxeak.

Arrieta'n agertzen da 1587'n. urtean. Fika'n dagon
Bainta etxearen izena be ori da.

-Ai- aldapa da, b- gero ezarria eta -eta'k ugaritasuna
dager. Aldapa asko dagon tokia.

Bedia: Izen au dauan errian eta inguruetan dago eta
Leon'era ta Logroño'ra be eldu da. Bedi- bedar-lekua da.
Lenago Bidiaga izango zan.

1597n. urtean Balladolid'en agertzen da.

Bela: Zuberoa'n agertzen da 912n. urtean eta Naparroa'n
1265n'ean. Gaztelerrrian dago beste bat.

Txori orren izena artzen da ez-izen lez.

EUSKERAZALEAK

Colon de Larreategi, 14 - 2.º dcha.
48001 BILBAO

200 pezeta (1,20 euro)

BBK

txartelak



BBK txartelek opariak gordetzen dituzte

Ordaindu erosketak edozein
BBK txartelekin eta, hilerro,
itzelezko opariak irabazi ahal
izango dituzu.

ISSN: 1132 - 1350

Lege gordailua: BI-1452-85

FLASH COMPOSITION, S.L. - BILBAO

www.bbk.es

bbk²